- b. Cuando los vehículos únicamente cuenten con una póliza de responsabilidad civil en vehículos terrestres automóviles, la cobertura de riesgos extraordinarios por el Consorcio de Compensación de Seguros garantizará el valor del vehículo en el estado en que se encuentre en el momento inmediatamente anterior a la ocurrencia del siniestro según precios de compra de general aceptación en el mercado.

Comunicación de daños al Consorcio de Compensación de Seguros

- 1. La solicitud de indemnización de daños cuya cobertura corresponda al Consorcio de Compensación de Seguros, se efectuará mediante comunicación al mismo por el tomador del seguro, el asegurado o el beneficiario de la póliza, o por quien actúe por cuenta y nombre de los anteriores, o por la entidad aseguradora o el mediador de seguros con cuya intervención se hubiera gestionado el seguro.
- 2. La comunicación de los daños y la obtención de cualquier información relativa al procedimiento y al estado de tramitación de los siniestros podrá realizarse:

- Mediante llamada al Centro de Atención Telefónica del Consorcio de Compensación de Seguros (952 367 042 o 900 222 665).

- A través de la página web del Consorcio de Compensación de Seguros (www.consorseguros.es).

- 3. Valoración de los daños: La valoración de los daños que resulten indemnizables con arreglo a la legislación de seguros y al contenido de la póliza de seguro se realizará por el Consorcio de Compensación de Seguros, sin que éste quede vinculado por las valoraciones que, en su caso, hubiese realizado la entidad aseguradora que cubriese los riesgos ordinarios.
- 4. Abono de la indemnización: El Consorcio de Compensación de Seguros realizará el pago de la indemnización al beneficiario del seguro mediante transferencia bancaria.

Zure pantaila zaintzen dugu (BGDT010025)

BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza Berezitzat jotzen dira Baldintza Orokor gisa definitutakoak osatzen edo aldatzen dituztenak. Baldintza horiek aplikatzeko, ados egon behar dute aldeek, eta ezin dute kontraesanik eragin indarrean den legeriarekin. Aseguru-poliza honi segidan zehaztutako Baldintza Berezia aplikatuko zaizkio:

1. DEFINIZIOAK

- Kalte-ordaina: Aseguratzailerak bi aukera hauen artean hautatuko du kalte-ordainketa: ezbeharra jasan duen pantaila ordeztzea edo hartzaileari/aseguradunari diru-kopuru bat ordaintzea, betiere kontuan harturik poliza honen 3. klausulan ("Estalduraren mugak") estalduraren mugez zehaztutakoa.
- Objektu aseguratua: Poliza honen Baldintza Partikularretan adierazitako smartphonea.
- Zenbateko aseguratua: Edonola ere, zenbateko aseguratua izango da Objektu Aseguratuaren balioa, betiere kontuan harturik poliza honen 3. klausulan ("Estalduraren mugak") kalte-ordainketaren mugez zehaztutakoa.
- Banatzaila: Euskaltel SA telekomunikazio-operadoreak (IFKa: A-48766695. Sozietate-helbidea: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio, Bizkaia. Posta-kutxa: 48.160), kontratu honetan, SPB IBERICA, Sociedad de Previsión Bancaria Ibérica Correduría de Seguros y Reaseguros SA enpresaren kanpo-laguntzaile gisa dihardu aseguratuaren kontratazioan

2. BERME ASEGURATUAK

Poliza honen bermeak bezero hauentzat daude erreserbatuta: komunikazio mugikorretarako kontratua duten eta gailu mugikor baten titular diren EUSKALTElen etxeko, enpresako eta autonomoen merkatuko bezeroentzat.

Poliza honetan jasotako baldintza eta mugak errespetatuz, aseguratzailerak konpromisoa hartzen du hartzaileari/aseguradunari kalte-ordainak ordaintzeko segidan zehazten diren Objektu Aseguratuaren aurkako arriskuengatik:

Ezbehar baten ondoriozko pantaila-haustura

3. ESTALDURA-MUGAK

Kontuan hartuz poliza honetako Baldintza Partikularretan jasotako Objektu Aseguratuaren balioa, honela gelditu da ezarria ezbehar baten ondoriozko estaldura-muga (aseguratuaren urteko kuota zehazten da):

Objektu aseguruaren balioa Estaldura-muga

0 - 150 €	110,00 €
151 - 200 €	140,00 €
201 - 250 €	180,00 €
251 - 436 €	210,00 €
> 437 €	300,00 €

Estaladura-muga gorabehera, poliza honek estaltzen duen ezbeharren bat gertatuz gero, urtean pantaila BATen (1) konponketa, gutxienez, bermatzen da.

4. GABEALDIA

Poliza honek ez du aurreikusten inolako gabealdirik; haren bermeak eraginkorrak izango dira kontratatzen den unetik beretik hasita.

5. FRANKIZIA

Indemnitzatu beharreko ezbehar bat gertatuz gero, poliza honek ez du aurreikusten frankiziarik hartzailearentzat.

6. BALIO-GALERA

Poliza honek ez du aurreikusten zenbateko aseguratuen balio-galerarik.

7. ESTALDURATIK KANPO

Segidan zerrendatzen dira estalduratik kanpo gelditzen direnak, eta Baldintza Orokorretan zehaztutakoak osatzen ditu zerrenda honek.

- Objektu Aseguratuen kanpoaldeari eragindako kalteak (azaleko urratuak, adibidez), betiere ez badiote eragiten terminalaren funtzionamendu egokiari.
- Objektu Aseguratuen lapurreta, galera edo desagertzea, baita istripu baten ondorioz gertatu baldin bada ere.
- Barne-kausei lotutako matxura, huts edo akatsak, fabrikatzailearen edo banatzailearen bermeak estaltzen baditu, bai eta estaltzen ez baditu ere; ohiko edozein erabilera eta higitze;
- Objektu Aseguratuen osagaien herdoiltzea, horren kausa edozein delarik ere; eta likidoren batek edo edozein hezetasun-motak eragindako kalteak.
- Materialaren zein fabrikazioaren ezkutuko akats batek eragindako kalteak.
- Objektu Aseguratuen pantailaz bestelako edozein osagai elektriko, elektroniko edo mekaniko.
- Pantailaz bestelako edozein elementuren konponketa baten aurrekontua egiteko kostuak, Aseguratzaileak ez badu onartu ezbeharra.

Ez zaizkio aplikatuko poliza honi Baldintza Orokorren 4. klausulan ("Estalduratik kanpo") jasotako beste kasu hauek:

- Objektu Aseguratuen jatorrizko ezaugarrien aldaketa.
- Zerbitzuan jartzeak dakartzan gastuak (adibidez, entrega eta instalazioa).
- Hartzaileak/Asegurudunak edo kanpo-zerbitzu batek Objektu Aseguratua instalatzea edo muntatzea; Objektu Aseguratua SPBk baimendu gabeko zerbitzu tekniko batek konpontzea;
- Objektu Aseguratuen eskuliburuan jasotako instalazio- edo muntatze-jarraibideei ez erreparatzea.
- Objektu Aseguratua desmuntatu gabe egin daitezkeen doikuntzak.
- Objektu Aseguratuari egokitzen ez zaizkion edo harekin bat ez datozen ekipu periferiko, parte kontsumigarri edo osagarriak erabiltzea.
- Objektu Aseguratuari eragindako kalteak eguzkitan edo tenperatura altuen eraginpean uzteagatik.

8. POLIZAREN IRAUPENA

Hartzaileak poliza onartzen duen egunetik bertatik aurrera izango ditu ondorioak polizak, prima ordainduz gero betiere. Honela gelditzen da ezarrita primaren modalitatea:

Hileko prima EUSKALTELEk fakturatuko du, aldi berean Aseguru-hartzaile eta Euskaltelen telekomunikazio-zerbitzuen Bezero denaren telekomunikazio-zerbitzuen hileko kuotan. Ondorioz, aseguruia indarrean egongo da Bezeroak hileko faktura bat sortzen duen telekomunikazio-zerbitzu bat Euskaltelekin kontratatuta daukan bitartean. Hileko primak ez dira hainbanagarriak. Hileko fakturazio-ziklo bakoitzaren hasieran sortuko da prima, nahitaez; beraz, hasitako ziklo bakoitzeko dagokion hileko ordainagiria helbideratuko da.

Polizak 1 urte (BAT) iraungo du, eta urtez urte berrituko da automatikoki, baina Hartzaileak badu eskubidea poliza noiznahi desegiteko, Euskalteli horren berri emanda, edozein komunikazio-bide frogagarritatik. Desegitea berehala sartuko da indarrean.

9. ESTALDURAREN EREMU GEOGRAFIKOA

Kontratu honen aplikazio-eremua mundu osoa da.

10. KLAUSULA GEHIGARRIA

Ez zaizkio aplikatuko poliza honi Baldintza Orokorretan jasotako xedapen hauek:

- Saltokian erositako objektuaren erosketa-faktura gordetzeko obligazioa.
- Egiaztagirri hauek aurkezteko beharra, ezbehar bat gertatuz gero:
 - Hala dagokionean, Objektu Aseguratuen erosketa-faktura.
 - Lapurtu izanaren salaketa, erakunde eskudunaren aurrean.
 - SIM txartel berriaren erosketa-faktura.
 - Iruzurrezko jakinarazpenen faktura xehatua
- Ezbeharra onartuz gero: ASEGURU-ETXEA EGINGO DA ORDEZTU BEHARREKO PANTAILAREN JABE.

11. DATUEN BABESA

Asegurudunari espresuki jakinarazi zaio eta onartu du automatikoki tratatuko direla PLUS ULTRA Seguros Generales y Vida SA de Seguros y Reaseguros eta SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA, CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresei (eta haien ordezkariei) eta Kontratuaren arabera eta haren ondoriozko kudeaketa-prozesuetan diharduten banatzaileei eman dizkion datu pertsonalak.

-Gogorazten zaio ezen, datu pertsonalen inguruan indarrean diren legezko xedapenen eta erregelamenduen arabera, nahitaezkoa dela datuok ematea, ezinbestekoak baitira Kontratua kudeatzeko, eta, beraz, datuok gorde ahal izango direla Kontratuaren ondoriozko ekintza juridikoak preskribatu arte.

-Informazio hori hauei bakarrik emango zaie: PLUS ULTRA Seguros Generales y Vida SA de Seguros y Reaseguros enpresari, SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresari (eta haien ordezkariei), haien produktuen banatzaileei —Kontratuaren kudeaketarekin loturiko kontuutarako— eta kudeaketa-prozesu horretan parte hartzen duten kontratupeko bazkideei, eta, hala dagokionean, administrazio- eta lege- erakunde eskudunei.

-Asegurudunak eskubidea du PLUS ULTRA Seguros Generales y Vida SA de Seguros y Reaseguros enpresaren edo SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresaren fitxategietan dauden bere datu pertsonaletara sartzeko, haiek ezeztatzeko (bidezko arrazoi bat dela medio), zuzentzeko eta lekualdatzeko. Halaber, eskubidea du berari dagozkion datu pertsonal akastun, osatugabe, zalantzarik edo iraungiak ezabatzeko, bai eta jasotzea, erabiltzea, jakinaraztea edo gordetzea galarazita dagoen datuak ezabatzea ere. Eskubide horiek egikaritzeko (datu pertsonalen tratamendua dela-eta indarrean diren legezko xedapenetan eta erregelamenduetan ezarritako modalitateak errespetatuz) harremanetan jarri behar da SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresarekin, nortasuna identifikatzeko aukera ematen duen edozein bide erabilita: adibidez, gutun bat idatziz, eta, harekin batera, nortasuna egiaztatzen duen dokumentu bat bidaliz (datatua eta sinatua) helbide honetara: SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA, 99010 posta-kutxa – 28080 Madril.

-Asegurudunak, halaber, jarraibideak eman ditzake —eta nahi duenean aldatu— azalduz nola nahi duen jokatzeko bere datu pertsonalen gordetze, ezabatze eta jakinarazteari dagokionez bera hiltzen denean, eta, nahi badu, pertsona bat izenda dezake ekintza horiek guztiak egiteko. Jarraibiderik ematen ez badu edo ekintza horiek egiteko inor izendatzen ez badu, datu pertsonalen tratamendua dela-eta gaur egun indarrean dauden legezko xedapen eta erregelamenduak aplikatuko dira.

-Adierazpen faltsu edo arauz kontrako orok berriazko tratamendua jasan ahal izango du, iruzurra prebenitzeko edo identifikatzeko.

-Asegurudunaren eta SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresaren arteko telefono-elkarrizketak grabatu ahal izango dira, eskaintako zerbitzuen kalitate-kontrola egiteko edo, ezbehar bat gertatuz gero, Asegurudunari arreta egokia emateko erabiltzeko.

-Poliza eta harekin loturiko ezbeharrek kudeatzeko jasotako datuak jakinarazteko, datu pertsonalen tratamendua dela-eta indarrean diren legezko xedapenetan eta erregelamenduetan —eta, bereziki, DBEO Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrean— aurreikusitako baldintza eta modalitateei jarraitu behar zaie.

-SOCIEDAD DE PREVISIÓN BANCARIA IBÉRICA CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA enpresaren konfidentzialtasun-politika kontsultatzeko, jo helbide honetara: <http://www.spb.eu>.

12. HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

Telefono-zenbakia: 900 835 052
H.el: seguroeskaltel@spb.eu
Ezbehar baten berri emateko, jo zuzenean izapide-zerbitzura, Bezeroaren Gunearen bidez: <https://miseguro.spb.eu>

Poliza honekin loturiko erreklamazioetarako, bezeroarentzako arreta-zerbitzu bat du Asegurudunak. Hauek dira zerbitzuaren datuak:

PLUS ULTRA SEGUROS - Servicio de Atención al Cliente
Plaza de las Cortes, 8 - 28014 Madrid
H.el.: djusto@ztems.eu

13. BEZEROAREN DEFENDATZAILEA

Kexa edo erreklamaziorik baldin bada, Aseguru-hartzaileak, Asegurudunak, hirugarren kaltetuek edo haietako edozeinen kausadunek aukera izango dute —finantza-entitateen bezeroaren arretarako sail eta zerbitzuei eta bezeroen defendatzaileari buruzko 2004ko martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduaren arabera— hasiera batean SPB Ibéricaren bezeroarentzako arreta-zerbitzura jotzeko, kontratu honen “Harremanetarako datuak” klausulan adierazitako bideetaren batetik.

Bezeroaren gustura ebatzi ez diren erreklamazioetarako, SPB Ibéricak badu bezeroaren defendatzailea, zeinak bermatuko baitu bezeroen eskubideak egoki babesten direla; zerbitzu horrek modu guztiz independentean ebaztuko ditu kexa eta erreklamazioak, aurkeztzen direnetik aurrerako bi hilabeteko epean.

Hauek dira zerbitzu horren harremanetarako datuak: Red de Consultores Legales y Tributarios
defensordelcliente@rcred.com

Zure pantaila zaintzen dugu (BGDT010025)

BALDINTZA OROKORRAK

1. AURRETIAZKO INFORMAZIOA

Indarrean den legeriaren arabera, estaldura eskatzen zaion Aseguratzailerak hau adierazten du:

- 1.- Polizaren Baldintza Partikularretan bere datuak jasoak dituen Aseguratzailerarekin egingo da aseguru-kontratu hau.
- 2.- Polizaren Baldintza Partikularretan jaso da goz zer Estatu kideri eta zer agintaritzari dagokien aseguru-jardueraren kontrola.
- 3.- Kontratu honi aplikatzeko legeria hau da: Aseguru Kontratuari buruzko 1980ko urriaren 8ko 50/1980 Legea; Aseguru Pribatuen Antolaketa eta Ikuskapenerako 1995eko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen Testu Bategina; eta Espainiar aplikatzekoak diren gainerako garapen-arauak.
- 4.- Barruko erreklamazio-instantziak hauek dira:
 - a. Lehenik: Aseguratzaileraren bezeroarentzako arreta-zerbitzua (poliza honen Baldintza Berezietan daude jasota haren harremanetarako datuak).
 - b. Bigarrenik: Bezeroaren defendatzailea (poliza honen Baldintza Berezietan daude jasota haren datuak).
- 5.- Kanpoko erreklamazio-instantziak hauek dira:
 - a. Aseguru-hartzailearen egoitzari dagokion lehen auzialdiko epaitegia.
 - b. Arbitro bat edo batzku, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen defentsarako Lege orokorraren 31. artikuluan eta haren garapen-arauetan aurreikusitako moduan, hargatik eragotzi gabe Arbitraje Legean ezarritakoa.
 - c. Aseguren Zuzendaritza Nagusia, erreklamatzailerak uste badu entitate aseguratzailerak abusuzko jokabidea izan duela edo kalte egin diela Aseguru Kontratutik eratorritako eskubideei.

Aseguru-hartzaileak ezagutzen eta onartzen du klausula honetako informazioa, zeina eman baitzaio kontratu hau sinatzeko egunean bertan baina sinatu aurretik.

2. ASEGURUA KONTRATATZEA

Poliza hau Aseguratzailerak baimendutako saltokietan bakarrik eskuratu daiteke.

Hartzaileak eta/edo Asegurudunak dokumentu hauek jaso behar ditu, ezbehar bat gertatzen denerako: Baldintza Partikular, Berezi eta Oroker hauek, prima ordaindu izanaren egiaztatzea eta Objektu Aseguratua.

3. DEFINIZIOAK

- Osagarria: Objektu Aseguratuaren funtzionamenduari zerikusia duen edozein atal kontsumigarri (esku libreko ekipoa, kargagailua, txartel osagarriak eta, oro har, Objektu Aseguratuaren sekundariotzat hartzen den edozein osagarri).
- Istripua: Asegurudunari eta Objektu Aseguratuari eragiten dien aurrekusi ezineko gertaera bat-batekoa.
- Aseguruduna: Polizaren hartzailea eta Objektu Aseguratuaren jabea, edo Hartzailearen berariazko baimenaz objektu hori erabiltzen duen pertsona.
- Espoliazioa: Hirugarren batek Asegurudunaren aurrean indarkeria fisikoa erabiltzea edo indarkeria fisikoa erabiltzeko mehatxua egitea Objektu Aseguratua kentzeko. Indarrez tira eginda lapurtzea espoliazio-era bat da.
- Matxura: Objektu Aseguratuak zuzen funtzionatzea galarazten duen kaltea, dela fenomeno elektriko, fenomeno elektromekaniko edo barne-fenomeno mekaniko batek eragindakoa, dela Objektu Aseguratuaren erabilerak eta higadurak eragindakoa.
- Ekipo berritua: Ekipo aztertu, berrasieratu eta egokitu, osagai kosmetiko guztiak aldatu zaizkiona eta proba funtzional guztiak gainditu dituen.
- Ordezteko ekipoa: Ekipo berri edo berritua, Objektu Aseguratuaren berdin-berdina edo haren antzeko ezaugarri teknikoak dituen (Aseguratzailerak aukeratua), banatzailearen edozein saltokitan erositako ekipoa polizaren Baldintza Berezietan ezarritako estaldura-mugen barruko balioa duena.
- Bermealdian ordezteko ekipoa: Fabrikatzaileak emandako ekipoa, Objektu Aseguratuak matxura bat edo barne-hutsegite bat baldin badu fabrikatzailearen/banatzailearen bermealdian, eta Objektu Aseguratua ordezteko duena.
- Ezbeharrezko galera: Objektu Aseguratua fisikoki berreskuratzea galarazten duen istripu batek eragindako galera.
- Ebasketa: Objektu Aseguratua kentzea indarrak erabili gabe, sarraila-mekanismoak hautsi edo hondatu gabe, eta Objektu Aseguratua kentzeko hirugarren batek Asegurudunaren aurrean indarkeria fisikoa erabili gabe edo indarkeria fisikoa erabiltzeko mehatxua egin gabe. Axolagabekiaren ondoriozko lapurreta ere ebasketa-mota bat da.
- Kalte-ordaina: Aseguratzaileraren aukera izango da, ezbehar baten kasuan, Ordezteko Ekipo bat hornitzea, ezbeharra izan duen ekipoa konpontzea edo diru-kopuru bat ematea, Baldintza Berezietan adierazitako estaldura-mugen barnean.
- Objektu Aseguratua: Banatzailearen saltoki batean eskuratutako telefonia mugikorrekiko ondasuna, datuak polizaren Baldintza Partikularretan adieraziak dituen eta zehaztutako estaldurak dituen, bai eta, hala dagokionean, Bermealdian Ordezteko Ekipoa eta Ordezteko Ekipoa ere.
- Oxidazioa: Urarekin edo beste gai likidoren batekin edo ustekabeko hezetasunarekin kontaktua izatearen ondorioz gertatzen den oxido-metaketa.
- Ezbeharrezko oxidazioa: Urarekin edo beste gai likidoren batekin zuzeneko kontaktua izatearen ondorioz gertatzen den oxidazioa.
- Ezbeharrezko eza den oxidazioa: Objektu Aseguratua ingurune-faktore jakin batzuen mende denbora luzean egoteagatik sortutako oxidazioa edo Objektu Aseguratua oxidazio hori erazten duten egoeretan denbora luzean erabiltzeagatik sortutakoa.
- Indarrez lapurtzea: Objektu Aseguratua kentzea sarraila-mekanismoen bat bortsatuz, hautsiz edo hondatuz. Eskalatuta lapurtzea Indarrez lapurtzeko era bat da.
- Eskalatuta lapurtzea: Objektu Aseguratua legez kontra kentzea, hura dagoen tokira legez kontra iritsita eta itxiera-mekanismoen bat hautsita.
- Indarrez tira eginda lapurtzea: Objektu Aseguratua indarrez kentzea.
- Ezbeharrezko Haustura: Objektu Aseguratuaren edozein narriatze edo suntsitze, kanpoaldean ageri dena, objektuak ondo funtzionatzea galarazten duena eta istripu baten ondorio dena, poliza honen arabera betiere.
- Hirugarrena: Hartzailea edo Aseguruduna ez den edozein pertsona, edo Hartzailearen edo Asegurudunaren ezkontidea, izateko bikotekidea, arbasoa edo ondorengoa ez dena, edo, Hartzailea edo Aseguruduna pertsona juridiko bat denean, haren enplegatua ez dena; bai eta Objektu Aseguratua erabiltzeko Hartzailearen edo Asegurudunaren baimena ez duen edozein pertsona ere.
- Erabilerak eta higatze ohikoak: Objektu Aseguratuaren edo haren osagai baten edo batzuen pixkanakako narriatzea, erabilerak eragindakoa.

4. ESTALDURATIK KANPO

- Hartzaileak/Asegurudunak edo Hirugarren bat ez den edozein pertsonak fede gaiztoz egindako nahitako edo iruzurrezko edozein ekintza.
- Hartzaileak/Asegurudunak ezbehar baten ondorioz jasandako zeharkako edozein kalte, finantzazkoa izan zein ez izan.
- Ezbehar baten ondorioz datu-baseak, fitxategiak edo softwarea suntsitzea edo galtzea.
- Edozein kalte, baldin eta Asegurudunak ezin badu entregatu Objektu Aseguratua edo baldin eta objektu horren serie-zenbakia irakurgaitza bada.
- Pixel-kopuru akastuna (indarrean den ISO arauaren tolerantzia-atalasearen kopuru berdina edo txikiagoa).
- Ezbehar bat gertatuz gero, estalia egon behar du denak: entrega, jasotzea...
- Pantailaz bestelako beste edozein elementuren konponketaren aurrekontua egiteko kostuak, Aseguratzailerak ez badu onartu ezbeharra.
- Aseguratzailerak aldeaz aurretik onartu gabe Asegurudunak ordaindutako konponketa-gastuak.
- Objektu Aseguratua mantentzeko, berrikusteko, aldatzeko, hobetzeko edo konpontzeko kostuak.
- Asegurudunak edo Hirugarren batek edo Aseguratzailerak onartu gabeko edozein "Saldu osteko Zerbitzua" unitate zentrala edo edozein elementu periferiko ireki eta aldatzearen ondorioz gertatutako kalteak.
- Ekipoa, baldin eta Asegurudunak haren primaren ordainketa egunean ez badu.
- Fabrikatzailearen gomendioek edo estandarrek agintzen dutenaz bestelako erabilerak edo Objektu Aseguratuaren mantentze-lanik eza.
- Programa bat aldatzea, datu-parametrizazioa edo softwarearen akatsa.
- Objektu Aseguratuaren osagarriak eta kontsumigarriak, hala nola elikadura-kableak, bateriak, pilak, soinu-txartelak, irudia, bideoa, jokoak, DVDa...
- Hondamendi naturalak, Aseguren Kontentsazio Partzuergoak estaltzea gorabehera.
- Edozein eradiatzen ionizatu edo elementuen edo haren parte nuklearen ahainen arriskutsuen ondorioak.
- Herritarren iskanbila, matxinada, greba, barne-istilu, terrorismo eta sabotajeak direla-eta egindako ekintza politiko edo sozialaren ondorioz gertatutako ezbeharrak.
- Gerra zibila edo nazioarteko gerra (adierazpen ofizialarekin ala gabe), herritarren edo militarren jaikiak, matxinada, errebolta, iraultza edo edozein eratako operazio belikoak.
- Espainiatik kanpo, Aseguren Kontentsazio Partzuergoak Espainian estaltzen dituen ohiz kanpoko ezbeharrak.

Estalduratik kanpo gelditzen diren ezbehar horiei poliza honen Baldintza Berezietan azaldutakoak gehitu behar zaizkie.

5. EZBEHAR-KASUETARAKO PROZEDURA

OHAR GARRANTZITSUA: Bezeroarentzako arreta-zerbitzuekin harremanetan jarri aurretik, irakurri arretaz poliza:

- 1. Bezeroarentzako arreta-zerbitzuekin harremanetan jartzeko: Oro har, ezbeharren berri izan bezain laster, Asegurudunak haren berri eman behar du, Bezeroaren Gunearen bidez: <https://miseguro.spb.eu>; bestela, bezeroarentzako arreta-zerbitzua deitu behar du (poliza honetan jasota dago telefono-zenbakia), eta hark emandako argibideei jarraitu behar die.
- 2. Ezbeharren frogak: Prozesua osatzeko, asegurudunak segidan zerrendatzen diren dokumentuak bidali behar ditu Bezeroaren Gunearen bidez edo bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren bidez:
 - Prima ordaindu izanaren egiaztatzea
 - Asegurudunaren idatzi bat, ezbeharren xehetasunak adierazten dituen.

- Polizaren Baldintza Berezietan zehaztutako estalduraren arabera:
 - Ezbeharrak izan duen Objektu Aseguratua
- 3. Bidali beharreko informazio osagarria: Beharrezko den guztietan, Aseguruduna behartua dago beste edozein informazio edo dokumentazio bidaltzera, hala eskatzen bazaio ezbeharrak edo erreklamaturako kalteak frogatzeko.
- 4. Ezbeharrak onartzea: ASEGURU-ETXEA EGINGO DA ORDEZTU BEHARREKO PANTAILAREN JABE.

6. PRIMA

Primaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua polizaren Baldintza Partikularretan zehazten dira.

7. POLIZA INDARREAN SARTZEKO DATA

Hartzaileak poliza onartzen duen egunetik bertatik aurrera izango ditu ondorioak polizak, prima ordainduz gero betiere.

8. POLIZAREN IRAUPENA

Baldintza Berezietan dago jasota polizaren iraupena.

9. ESTALDURAK AZKENTZEA

Poliza automatikoki amaituko da kasu hauetan:

- Baldintza Berezietan jasotako kontratazio-aldia amaitzen denean.
- Aseguru-prima ordaintzen ez bada. Hala badagokio, Asegurudunak itzuli egin beharko ditu baldintza hauen arabera jasotako kalte-ordainak.
- Aseguruaren Objektua desagertzen edo osotara suntsitzen bada, kontratu honi loturiko bermeak aktibatu gabe.
- Aseguruei buruz indarrean den legerian aurreikusitako gainerako kasu guztietan.

10. JURISDIKZIOA

Aldeek auzitara jo nahi duten kasurako, poliza hau Espainiako jurisdikzioaren mende geratzen da, eta Aseguru-hartzaileak egoitza duen lekuko epaitegi eta auzitegiak izango dira eskudun; horretarako, egoitza bat izendatuko du Espainian, berea atzerrian baldin badu.

11. DESADOSTASUN-KASUETARAKO KONPONBIDEA

1980ko urriaren 8ko 50/1980 Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da ezen, poliza honen edukia ez badator bat aseguru-proposamenarekin edo adostutako klausulekin, Aseguru-hartzaileak edo Asegurudunak erreklamazioa egin ahal izango diola Aseguratzailari hilabeteko epean, Poliza entregatzen denetik aurrera kontatuta, desadostasuna konpon dezan. Epê horretan erreklamaziorik ez bada, Polizak dioenari jarraituko zaio.

12. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren kalte-ordainen ordainketarako klausula, Espainian izandako ezohiko gertaeretatik eratorritako galeretarako egindako ondasun-aseguruetan eta lurreko ibilgailuen erantzukizun zibileko aseguruetan

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoaren arabera (2004ko urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia), aipatutako enpresa-erakunde publikoaren aldeko errekaragu bat jaso beharra daukatenetako aseguru-kontratu baten hartzaileak badu aukera indarrean dagoen legeriak eskatutako baldintzak betetzen dituen edozein aseguru-erakunderekin hitartzeko ezohiko arriskuen estaldura.

Espainian izandako ezohiko gertaeren ondorioz gertatutako ezbeharrei eta hien kokaturiko arriskuei dagozkien kalte-ordainak Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu, aseguru-hartzaileak bere aldeko errekaraguak ordaindu baditu eta egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako arriskua ez egotea babestuta aseguru-etxearekin kontratatutako aseguru-polizan.
- Aseguru-polizak babestuta egonda ere aseguru-etxearen betebeharrak ezin bete izatea, epaiketa bidez konkurtsoan deklarata eta likidazio-prozedura batean, interbenituta edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere gain hartuta dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak lege hauek xedatzen dutenaren arabera jokatuiko du: aipatutako legezko Estatutua, Aseguru Kontratuari buruzko 1980ko urriaren 8ko 50/1980 Legea, ezohiko arriskuen aseguruaren Erregelamendua (2004ko otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsia), eta xedapen osagarriak.

Lege-arauen laburpena

1. Estalitako ezohiko gertaerak

- Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas erasoak barne direla), sumendi-erupzioak, ekaitz zikloniko atipikoa (orduko 120 km baino gehiagoko haize-bolada ezohikoak eta zurrumbilao barne) eta gorputz sideralen eta meteoritoen erorketak.
- Terrorismoaren, altxamenduen, sedizioen, matxinaden eta herri-zalaparten ondorioz bortizki gertatutakoak.
- Indar Armaturen edo Segurtasun Indar eta Kidegoen bake-garaiko ekintzak edo jarduerak.

Fenomeno atmosferiko eta sismikoak, sumendien erupzioak eta gorputz sideralak egiaztatu beharko dira —Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eskatuta— AEMET Meteorologia Agentzia Estatalak, Espainiako Geografia Institutuak eta gaian eskumena duten gainerako erakundeek egindako txostenen bidez. Gertaera politiko edo sozialen kasuan, edo Indar Armatek edo Segurtasun Indar eta Kidegoen bake-garaiko ekintzek eragindako kalteen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertatutakoari buruzko informazioa eska dakieke eskumena duten jurisdikzio- eta administrazio-organismoel.

2. Kanpoan geratzen diren arriskuak

- Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik sortzen ez dutenak.
- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren aldeko errekaragu nahitaezkoa duten kontratuez bestelako aseguru-kontratuek aseguraturako ondasunetan eragindakoak.
- Aseguratutako gauzaren akatsel edo okerre dagozkienak edo haren mantentze-lanen falta nabarmenari dagozkionak.
- Gatazka armateuek eragindakoak, nahiz eta gerra-adierazpen ofizialik egon ez.
- Energia nuklearraren ondoriozkoak, hargatik eragotzi gabe maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoak (kalte nuklearrek edo material erradiaktiboek sorturiko kalteek eragindako erantzukizun zibilar buruzko Legea). Edonola ere, barnean hartzen ditu instalazio nuklear aseguratu batean sortzen diren zuzeneko kalte guztiak, baldin eta instalazioari berari eragiten dion ohiz kanpoko gertaera baten ondorio badira.
- Denboraren joanaren ondorio direnak, eta, etengabe urpean (osorik edo partzialki) dauden ondasunen kasuan, ohiz kanpoko olatu edo ohiko korronteen eraginez sortutakoak.
- Ezohiko arriskuen aseguruaren aurreko 1.a) atalean zehaztutakoak ez diren naturaren fenomenoak, eta, bereziki, maila freatikoa igotzeagatik, mendi-hegalak mugitzeagatik, lursailak irristatu edo mugitzeagatik, harriak erortzeagatik edo antzekoengatik sortutakoak, baldin eta ez badira nabarmen euri-uraren eraginez sortuak (ezohiko uholdeak eragin dituelako inguru horretan), eta kalteak uholdearekin batera gertatu ez badira.
- Bilera-eskubidea arautzen duen 1983ko uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera egindako bilera eta manifestazioetako istiluen eraginez sortuak, bai eta greba orokorretan sortuak ere, salbu eta jarduera horiek ezohiko gertaera gisa sailkatu baldin badaitezke aurreko 1 b) atalean.
- Asegurudunak fede txarrez eragindakoak.
- Ondasunak kaltetzen edo diru-galerak eragiten dituzten fenomeno naturalen ondoriozko ezbeharrak, baldin eta polizaren jaulkitze-data edo indarrean sartzeko data —geroagokoa bada— ez baldin bada ezbeharrak gertatu baino zapi egun natural baino lehenagokoa, salbu eta frogatzen baldin bada ezin izan dela lehenago kontratatutako aseguru ez zegoelako interes aseguragarriak. Gabealdi hori ez da aplikatuko poliza erakunde berean nahiz beste batean ordezen (edo bermealdian ordezen) baldin bada etenik gabe, salbu eta estaldura handitzen edo berritzen den zatian. Halaber, gabealdia ez da aplikatuko polizan aurreikusitako balio handitze automatikoaren ondorioz aseguraturako kapitalen zatian.
- Lehendabiziko prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharrei dagozkienak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat etorrit, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo primak ez ordaintzeagatik aseguru azkenduta dagoenean gertatutakoei dagozkienak.
- Zeharkako arriskuak edo zuzeneko edo zeharkako kalteetatik eratorritako galerak, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduaen arabera indemnitzatu beharreko diru-galera diren galerez bestelakoak. Konkretuki, ez dira estaldura honetan sartzen eragine elektrikoaren, gas erregaiei, fuel-olioaren, gasolioaren edo beste isurkari batzuen hornidura etetearren edo aldatzearen ondorioz gertatutako kalte edo galerak, ez eta aurreko paragrafoan adierazitakoez bestelako edozein zeharkako kalte edo galera ere, nahiz eta gorabehera horiek ezohiko arriskuen estalduran sartuta dagoen kausa batetik etorri.
- Magnitudea edo larritasuna dela-eta Gobernuak katastrofe edo hondamendi nazional gisa sailkatu dituen ezbeharrak.

3. Frankizia

Asegurudunak frankizia hau ordaindu beharko du:

- Zuzeneko kalteen kasuan (gauzei eragindako kalteen aseguruetan), asegurudunak frankizia hau ordaindu beharko du: ezbeharrean gertatutako kalte indemnizagarrien zenbatekoaren % 7. Edonola ere, ez zaie frankizia-kenkaririk aplikatuko etxebizitzet, etxebizitza-jabeen komunitatei eta automobil-aseguru baten polizak babestutako ibilgailuei eragiten dieten kalteei.
- Diru-galera askotarikoaren kasuan, asegurudunak ordaindu beharreko frankizia izango da mozkin-galerak eragindako ezbehar arrunten ondoriozko kalteentzat polizak aurreikusitako bera (denboran zein zenbatekoan). Frankizia bat baino gehiago baldin badago mozkin-galeren ezbehar arruntak estaltzeko, estaldura nagusirako aurreikusitakoak aplikatuko dira.
- Poliza batean frankizia konbinatu bat ezartzen baldin bada kalteetarako eta mozkin-galerarako, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kalte materialak kitatuko ditu, hauek kontuan hartuz: aurreko a) atalean aurreikusitakoa aplikatzeak dakarren frankizia kentzea, eta gertatutako mozkin-galera, polizan estaldura nagusirako ezarritako frankizia kenduz (kalte materialen likidazioan aplikatutako frankizian minoratua).
- Estalduraren hedadura

- Ezohiko arriskuen estaldurak ohiko arriskuetaarako polizetan finkatu diren ondasunetarako eta zenbateko aseguratuetaarako balio du.
- Edonola ere:

- Ibilgailu motordunei norberak eragindako kalteak estaltzen diren polizetan, asegu daitekeen interesa osorik bermatzen du Partzuergoak ezohiko arriskuen estalduran, nahiz eta polizak partez bakarrik bermatu.
- Ibilgailuek lurreko ibilgailuetarako erantzukizun zibileko poliza bat bakarrik baldin badute, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuetaarako estaldurak hau bermatuko du: ibilgailuaren balioa ezbeharra gertatu aurreko unean zegoen egoeran, merkaturko erosketa-prezioak kontuan hartuz.

Kalteak jakinaraztea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari

1. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari eskatzeko estaltzea dagokion kalte-ordainen ordainketa, hari eskatu behar dio asegurua hartzaileak, asegurudunak, polizaren onuradunak (edo aurreko horien izenean jarduten duenak) edo asegurua egiteko baliatutako aseguru-etxeak edo aseguru-bitartekariak.
2. Kalteen berri emateko eta prozedurari eta ezbeharraren inguruko izapideen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, bide hauek erabil daitezke:
 - Aseguruen Konpentsazio Batzordearen telefono-arretako zentroa: 952 367 042 edo 900 222 665
 - Aseguruen Konpentsazio Batzordearen webgunea: www.conorseguros.es.
3. Kalteen balorazioa: Aseguruen Konpentsazio Batzordeak egingo du legediaren eta aseguru-polizaren edukien arabera kalte-ordainak jasotzekoak diren kalteen balorazioa; ez dio eragingo kalte arruntak estaltzen dituen aseguru-etxeak egindako balorazioak, halakorik badago.
4. Kalte-ordainen ordainketa: Aseguruen Konpentsazio Batzordeak banku-transferentzia baten bidez ordainduko dio kalte-ordaina onuradunari.